



2026NDIN0001

SUSTAPEN EKONOMIKOA, FORMAKUNTZA TEKNIKOA ETA "BIZITZARAKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ" PROGRAMA SUSTATZEKO ETA DIRUZ LAGUNTZEKO ELGOIBARKO UDALAREN ETA MAKINA-ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Alde batetik, **Maialen Gurrutxaga Uranga** andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmendua dagoena.

Eta bestetik, **Ixaka Egurbide Lekube** jauna, I5392510-J NAN zenbakiduna, adinez nagusia, G20302105 IFK zenbakidun MAKINA-ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOAREN izenean eta horren ordezkari gisa.

BILDU DIRA

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALDU DUTE

ELGOIBARKO UDALAK, udalerrian, "Bizitzarako Prestakuntza Euskaraz" programa sustatu nahirik, irakaskuntzaren esparruan bizitzarako prestakuntza euskaraz landuko duten programak antolatzeke laguntza eman nahi duela. ELGOIBARKO UDALAK, herriko enpresen lehiakortasuna bultzatu nahi duela industriaren arloan eta Teknologia Berritzeko eta Transferitzeko TKgune Fabrikazioa Sarearen baitan, gazteen ekintzailetasuna bultzatu nahi duela. Sare hau Lanbide Heziketako hainbat euskal ikastetxe osatzen dute.

Hortaz, MAKINA-ERREMINTAKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOAK Elgoibarko udalerrian sustapen ekonomikoa eta bizitzarako prestakuntza euskaraz sustatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztutako baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da MAKINA-ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOAK, 2025-2026 ikasturtean, sustapen ekonomikoa eta "Bizitzarako Prestakuntza Euskaraz" programa sustatzeko eta bideratzeko ELGOIBARKO UDALAK emango duen dirulaguntza arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, ELGOIBARKO UDALAK (aurrerantzean, UDALA) 63.595,00 euroko dirulaguntza emango dio MAKINA-ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOARI (aurrerantzean IMH). IMHk, berriz, hitzarmen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera burutuko duela.

Hirugarrena: Dirulaguntza hau UDALAK 2026. urterako indarrean duen aurrekontuko I 0209.481.324.00.04 2026 zenbakidun partidatik ordainduko da, honako helburuak betetzeko:

- **Berdintasuna**
 - Indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko programak.
- **Euskara Saila**

2026NDIN0001

- Elgoibarko IMH Fundazioaren "Goazen" euskara-planerako.
- Lantokian praktikak euskaraz sustatzeko egitasmorako.
- **Ongizate Saila**
 - Adikzioen prebentzioan babes faktore direnen lanketa.
 - Droga-mendekotasunen zein substantziarik gabeko mendekotasunen prebentziorako programak.
 - Substantziadun zein substantziarik gabeko adikzioen prebentzioan eragina izan dezaketen adostutako bestelako jardunak gauzatzea.
- **Sustapen Ekonomikoa**
 - Txandakako Ingeniaritza eskola sustatzeko.
 - "ASMAOLA": Enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektuak laguntzeko.
 - Industria-ekintzailatza sustatzeko ekimena.

Laugarrena: Sustapen Ekonomiko Sailari dagokionez, dirulaguntzetarako bete behar diren zehaztapenak ondorengoak dira:

TXANDAKAKO INGENIARITZA ESKOLA: MAKINA-ERREMINTAREN PRESTAKUNTZA

TEKNIKORAKO FUNDAZIOAK, herriko makina-erremintaren arloko enpresen beharizanei loturik, heziketaren arloan lan egiten duen erakundea dela, eta 2001 urtean UPV/EHUa atxikitzea lortu ondoren, IMHren Txandakako Ingeniaritza Eskolak, 2012 urtetik aurrera, "Prozesuen eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritza" gradua ematen duela. Horri esker, IMHk ikastetxearen eta enpresaren arteko txandakatzean oinarritzen den Espainiako unibertsitate-sistemako lehenengo titulua eskaintzenduen proiektu lagunduak:

- Irakasle-klaustroaren osaera indartzea, eta horretarako, enpresa-eremutik eta ikerketa mundutik datozen kanpoko doktoreen parte-hartzea bultzatzea.
- Pedagogia aktiboetako irakasgaiak aldatzeko prozesuan laguntzea.
 - Graduaren pedagogia errebisatu irakaskuntzaren berrikuntza ikuspuntutik.
 - Tutorizazioaren prozesua ziurtatu eta, posible bada, zertifikatu.
- Enpresari ematen zaion baliozko ekarpena maximizatzea, txandakatze ereduak eskaintzen duen erlazio sendoko testuinguruan. Eskolaren egonkortasuna eta hazkundea bultzatuko duten enprekin lankidetzatza loturak ezartzea.
- Eskolaren ikerketa ahalmena areagotzea, pedagogia eta ingeniari arloetan.
 - I+G+b transferitzeko gaitasunak garatu.
- Enpresen berrikuntzaren gakoetan eta enpresa txiki eta ertainei lotutako 4.0 estrategian eragina duten proiektuak garatzea.
- Masterraren bosgarren edizioa martxan jartzea eta bi berezko titulu eskaintzea.
 - "IMH Fabrikazio Aurreratu eta Digitalaren Campusa" kontzeptuarekin pausoak ematen jarraitu Elgoibarren Campus izaera lantzeko.
 - Adimen artifiziala ikasketa prozesuan txertatzeko lehenengo pausuak eman.
 - Transformazio digitalaren prozesua abiatu.

"ASMAOLA": Enpresen lehiakortasuna hobetzeko proiektu lagunduak:

IMHri dagokionez, 250 langile edo gutxiago izanik, Elgoibarren finkatuta dauden enpresak lehiakorragoak izan daitezen egitasmo teknologikoak laguntzeko aholkularitza teknikoa.

- Besteak beste, hauek izango dira proiektuen helburuak:
 - Berrikuntza erradikala.

2026NDIN0001

- Produktuak eta prozesuak berritzea.
 - Ekoizpen-errendimenduen hobekuntza.
- Diruz lagunduko diren gastuak:
 - IMHko teknikari eta aholkularien orduen kostua.
- Laguntzaren zenbatekoa:
 - Lagunduko den aurrekontu-muga %70ekoa izango da, betiere, enpresa bakoitzeko 7.000,00 euroko mugarekin
- Baldintzak:
 - Enpresa batek proiektu teknologiko bakarra aurkez dezake, ez gehiago.
 - Enpresa batek baino gehiagok egindako proiektu bateratua bada, enpresa bakoitzak bere eskaera egin beharko du, eta eskaeran bertan adierazi zein enpresarekin aurkezten duen proiektu bateratua.
 - Emandako dirulaguntza deialdira aurkeztu eta zehaztutako baldintzak betetzen dituzten enpresa guztien artean proportzionalki banatuko da.

“Industria ekintzailtza sustatzeko ekimena”:

Ekimenaren helburua Elgoibarko hezkuntza-ingurunean ekintzailtza sustatzea da, ikasleen artean ekintzailtzaren sustatzaile gisa IMH indartuz eta industria-ingurunean ekintzailtza biltzen dituen elkarten kolaborazioa kudeatuz. Horretarako, ekintza hauek planteatzen dira:

1. IMHn ekintzailtza bultzatzeko espazioak sortzea: Ikasturtean zehar, IMHren prestakuntzarekin lerrokatutako ekimenak egingo dira, ikasleek ekintzailtza-ideiak proposatu eta garatu ahal izan ditzaten, proposamen horiek sustatu eta urtez urte hobetuko dituen bame-dinamika bat sortuz.
2. Proposamen onenaren saria.
3. Proposamen onenaren saria emateko jardunaldia: jardunaldi bat egingo da ekintzailtza proposamen onenaren saria emateko. Jardunaldi hori adituen hitzaldiekin, industriako startup-en aurkezpenekin, startup-en eta industriaren arteko lankidetzaren adibideekin eta erakusketa-gunearekin indartuko da.
4. Proposamenik onenari bideragarritasuna aztertzeke laguntza:
IMH eta industria-ingurunean ekintzailtza biltzen duen elkarte baten eskutik, enpresa, administrazio publiko eta mentoreen aurrean aurkeztuko dute saritutako proposamena, bideragarritasuna eta martxan jartzeko aukerak aztertzeke.

Bosgarrena: UDALAK bi alditan ordainduko dio dirulaguntza IMHri, Udaleko Kontu-hartzailetzak dagozkion txostenak egin ostean.

Lehendabiziko zatia (%90), 57.235,5 €, hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean ordainduko da; bigarren zatia (%10), 6.359,5 €, berriz, dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztu eta hilabeteko epean.

Hori dela-eta, Elgoibarko Udalaren eta bere ardurapeko Autonomiadun Erakundeek dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 36.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiten den diru aurrerapena 30.000 eurotik gorakoa denez, IMHk, aurreratuko zaion zenbatekoaren % 7aren pareko bermea jarri beharko du. Horretarako, indarrean dagoen legedian araututako gordailuak, abalak, kauzio-aseguruak, berme pertsonal eta solidarioak nahiz bermeen eskubide errealak aurkeztu ahal izango ditu IMHk. 2019ko hitzarmena zela eta, IMHk jari zuen bermea (4.646,51 €), aurrean jari beharrezko baina handiagoa denez (4.536,00 €), eta bermeek eperik ez dutenez, IMHk ez du berme berririk egin beharko.

2026NDIN0001

Dirulaguntzaren bigarren zatia jaso ahal izateko, IMHk eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du Udalak onartutako dirulaguntzagai diren jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu **era elektronikoan 2026ko ekainaren 5a baino lehen.**

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

1.- Bizitzarako prestakuntza euskaraz programaren baitan jasotako dirulaguntzetarako:

- Jardueraren edo proiektuaren garapena azaltzeko memoria, genero ikuspegia txertaturik (datuak sexuaren arabera bereizita azaldu beharko dira eta hizkuntza ez sexista erabiltzea bermatu da). Memoria honetan arlo bakoitzeko helburuak betetzeko abian jarritako ekintzen berri emango da, hala nola helmena eta ebaluaketa.
- Dirulaguntza honen bitartez ordaindutako jardunak enpresa bat kontratatuz egiten direnean, enpresak prestatutako memoriaren kopia.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak. Alde horretatik, onartezinak izango dira lege ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Hezkuntza Zentroko diru-sarreraren eta gastuen behin betiko likidazioa, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldearen arrazoiak.
- Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (liburuxka, kartel, idatzi, argazki, bideo ...). Dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko da Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori, eta horretarako, Udalaz gain, beste erakunde baten laguntza jaso bada ere berdin jokatuko da.
- Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko.
- Zinpeko aitorpena. Hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein erakunde pribatu edo norbanakoren baten dirulaguntzak edota ordainketak jaso badira, ikasleen aportazioa barne, IMHk horren berri eman beharko dio UDALARI.

2.- Sustapen Ekonomiko Sailaren "TXANDAKAKO INGENIERITZA ESKOLA" programaren baitan jasotako dirulaguntzetarako:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko oroitidazkia, genero ikuspegia txertaturik. Horretarako, datuak sexuaren arabera bereizita azaldu beharko dira, eta berdintasuna sustatzeko, eta neska-mutilen parte-hartzearen parekotasuna ziurtatzeko, abian jarritako ekintzen berri emango da. Era berean, ikasle kopuruak mailak eta ordutegiak txertatuko dira, ordutegia...
- Behin betiko sarreraren eta gastuen zerrenda, eta hasierako aurrekontuaren eta behin betikoaren artean dauden aldearen arrazoiak.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak. Alde horretatik, onartezinak izango dira lege ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Egindako gastua egiaztatuko duten dokumentuak: egitasmoari emandako orduak eta lanak egin dituzten langileen nominak eta TC2ak.
- Dirulaguntza honen bitartez ordaindutako jardunak enpresa bat kontratatuz egiten direnean, enpresak prestatutako oroitidazkiaren kopia.
- Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (liburuxka, kartel, idatzi, argazki...). Dokumentazioan argi ikusteko

2026NDIN0001

moduan adierazi beharko da Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori, eta horretarako. Udalaz gain, beste erakunde publiko baten laguntza jaso bada ere berdin jokatuko da.

- Zinpeko aitorpena. Bertan adierazi egin beharko dira beste erakunde edo organismo batzuei eskatutako dirulaguntzak edo dagoeneko emandako gainerako dirulaguntzak, hala nola, bide pribatuetatik izandako diru-iturriak (ikasleek egindako ordainketak baxe).

3.- Sustapen Ekonomiko Sailaren "ASMAOLA" programaren baitan jasotako dirulaguntzetarako:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko oroitidazkia, genero ikuspegia txertaturik.
- Garatutako proiektu bakoitzaren txostena, non aholkularitza lanaren helburuak, lortutakoak eta abar adieraziko diren.
- Enpresei IMHK igorritako fakturak edo zerbitzua gainfinantzatuta ez dagoela egiaztatuko duten agiriak.
- Egindako gastua egiaztatuko duten dokumentuak: egitasmoari emandako orduak eta lanak egin dituzten langileen nominak eta TC2ak.
- Programa egiteko prestatzen diren dokumentu grafiko guztien ale bana. Publizitaterako materialak argi ikusteko moduan adierazi beharko du, Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori; eta horretarako, erakundearen logotipoa txertatu beharko da. Udalak eman duen dirulaguntzaren ondorioz sortzen diren jarduera eta material guztietan bete beharko da betebeharrak.

4.- Sustapen Ekonomiko Sailaren "Industria ekintzailatza sustatzeko ekimena" programaren baitan jasotako dirulaguntzetarako:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko oroitidazkia, genero ikuspegia txertaturik.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak. Alde horietatik, onartezinak izango dira lege ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Egindako gastua egiaztatuko duten dokumentuak: egitasmoari emandako orduak eta lanak egin dituzten langileen nominak eta TC2ak.
- Programa egiteko prestatzen diren dokumentu grafiko guztien ale bana gutxienez, hala nola: esku-orriak, kartelak, argazkiak, argitarapenak, ikus-entzunezko materiala, euskarri informatikoak edo beste edozein agiri. Publizitaterako materialak argi ikusteko moduan adierazi beharko du, Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori; eta horretarako, erakundearen logotipoa txertatu beharko da. Udalak eman duen dirulaguntzaren ondorioz sortzen diren jarduera eta material guztietan bete beharko da betebeharrak.

Elgoibarko Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, "Bizitzarako prestakuntza euskaraz" egitasmoa burutzen duten hezkuntza zentroentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarrengarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoaren arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazio

2026NDIN0001

emandakoak. Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekariz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Elgoibarko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu hitzarmen honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISA Eren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- GIZARTE SEGURANTZAK: Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ALDUNDIAK: Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ELGOIBARKO UDALAK: Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Seigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta bertan agertzen diren konpromisoak betetzen diren arte iraungo du eta gehienez, 2026ko uztailaren 31ra arte.

Zazpigarrena: IMHk, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- ❖ Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du. Dirulaguntzagaia osotasunean gauzatu eta zuritu beharko du.
- ❖ IMHk eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- ❖ Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein erakunde pribatu edo norbanakoren baten dirulaguntzak edota ordainketak jaso badira, gurasoen aportazioa bame, IMHk horren berri eman beharko dio UDALARI.
- ❖ Ekintzen publizitatea egiteko, zein familiei berri emateko, erabiliko diren euskarrietan Udalaren babesletza adieraztea Udalaren logoa jarrita, eta albisteetan Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela adierazita. Udalaz gain, beste erakunde baten laguntza jaso bada, dagokion logoa ere jarri beharko da.
- ❖ Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agirietako edukietan.
- ❖ Dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia kontuan izatea, hau da, genero-identitate ezberdinen ezaugarri, baldintzak, nahiak eta beharrak kontuan hartzea, berdintasunerako ekintza eta helburu zehatzak txertatuz.
- ❖ Genero-bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duten egitasmo, proiektu edo jarduerarik ez antolatzea (Adikzio prebentzioa eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko programak salbuetsita).
- ❖ Hitzarmen honen baitan gauzatzen diren ekimen guztietan, euskararen erabilera bermatu eta sustatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak bideratuko ditu. Halaxe egingo da, baita, ekintzen publizitatean zein informazioan, eta parte hartzen duten entitateekiko eta ikasleen familiekiko komunikazioetan.
- ❖ Antolatzen diren jarduera guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasuneko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.

Zortzigarrena: Elkarlan honen baitan IMHk eta UDALAK ondorengo konpromisoak hartzen dituzte:

2026NDIN0001

- Ikasturtean gutxienez, bilera bat egitea hitzarmenaren nondik norakoak aurkezteko eta aztertzeko.
- Hitzarmenaren gestio administratiboetarako, IMHk eta UDALAK ordezkari bana izendatuko dute ikasturte honetarako.
- Hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren egitasmoen jarraipena ikasturtez ikasturte egingo da eta udalaren sail bakoitzeko teknikariak izango du horren ardura.

Bederatzigarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da.

Horretaz gain, IMHri dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskararen datuetan gezurrak sartzea.
- Dirulaguntza emateko orduan ezarritako baldintzaren bat aldatzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea.
- Oinari hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
- Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea.
- Indarrean dagoen lege araudi guztia ez betetzea.

Hamargarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publikok edo pribatuk, zein norbanakok xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin edo ordainketekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamaikagarrena: Hitzarmen honetan parte hartzen duten Elgoibarko Udaleko sailek izango dute hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Honako hau izango du kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- ❖ Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- ❖ Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- ❖ Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak egiaztatzea.

Hamabigarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko Autonomiadun Erakundearen Diru Laguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan, baita Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea ere.



2026NDIN0001

Hamahirugarrena: IMHk, hitzarmen honen bidez zehazten den dirulaguntzaren onuradun den aldetik, UDALAK eskaintzen dion babesaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintza guztietan.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmena sinatzen dute izenpean jasotako toki-egunetan.

Sinatzailea/k	ALKATEA MAIALEN GURRUTXAGA URANGA IMH			
Kodea	HI26/0035	Udala	Elgoibar	
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/100/AAAA9BF4H.yLX6			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakur ezazu.				